

Alaitz eta Maider

Trikitilariak



«Piper egiten genuen»

Alaitz eta Maiderrek aspalditik abesten dute batera, eta horri esker batzuetan eskolara joaten ez zirela aitortu digute

Ikastola berean ikasi al zenuten?

Hamalau urte egin arte bai, Haurtzaro ikastolan.

Gustura joaten zineten?

Maider: Seigarren maila arte bai. Lagunengatik gustura, bai-na ikasketa aldetik...

Alaitz: OHOk zortzigarren maila arte baietz uste dut.

Zer moduz irakasleekin?

Maider: Ondo. 1990ean Kantu Txapelketan parte hartu genuen

nean etapa polit bat izan genuen. Irakasleekin giro ona sortu zen. Besteak gelan zeuden bitartean, guk atera eta entseatu egiten genuen.

Maider: Batzuetan piper egiten genuen. Kantu Txapelketaren biharamunean amari justifikantea eskatu, eta ez ginen ikastolara joaten.

Zertan jolasten zineten?

Maider: Goman, kromoetan, sokasaltoan... Txokolatero molinero-an ere aritzen ginen: hodi luze batzuetan, euria egiten zuenean, belarrak sartu, eta txokolatero molinero abesten genuen makila batekin bueltak ematen genizkion bitartean.

Alaitz: Modaren arabera. Txikiagoak ginenean katxarritoetan, plastikozko kaxuelitekin.

Mutilekin batera?

Alaitz: Banaturik; mutilak futboleak aritzen ziren.

Maider: Txiki-txikiak ginenean ez; batzuetan gelan denak biluzik jarri, eta mahai batetik bestera saltoka aritzen ginen.

Zein marrazki dituzue gustukoen?

Biak batera: Sandibelly. **Maider:** Arturo Erregea izugarri, musika polita zuen. Oraindik ere badut Telekanten kaseta.

Alaitz: Candy ere bai.

Oroitzapen onena?

Alaitz: Kantu Txapelketa. Bederatzi neska bildu ginen, eta oso giro ona sortu zen.

Maider: Oso polita izan zen.

Zer abesten zenuten?

Maider: Festarik festa.

Alaitz: Euskal kantak: Xarmangarria zira, Maitia nun zira...

KORRIKA

■ Arraina edo haragia?

M: Arraina.

A: Arraina.

■ Negua edo uda?

A: Uda.

M: Lau urtaroak.

■ Margo bat?

M: Urdina.

A: Urdina.

■ Animalia bat?

M: Koala.

A: Txakurra.

■ Zenbaki bat?

M: 2.

A: 3.

■ Ipuinetako pertsonaia bat?

A: Hiru

txerrikumeak.

M: Otsoa.

Testua:

Jon Ordoñez
Garmendia

Argazkia:

Mikel Martinez



Zintzo mintzo

Zer egingo zenuke munduaren jabe bazina?
Bidal! zure argazkia eta erantzuna.